

Turku Unibertsitateko Jari M. Lahtinen irakasleak Mondragon Unibertsitatea bisitatu du.

2010/10/25

Mondragon Unibertsitatearen eta Finlandiako Turku Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren barnean, unibertsitate honetako Teknologia, Ingurumena eta Negozioetako departamentuko Jari M. Lahtinen irakasle eta ikertzaileak bisitatu gaitu.

Bere egonaldian Jari M. Lahtinen irakasleak hainbat hitzaldi eman ditu: bata, barkuetako osagaien diseinu eta materialei buruzkoa izan da, Industri Ingeniaritzako 4. eta 5. mailako ikasleei zuzendua, non esparru honetako ikerketa lerro komunak identifikatu diren.

Bestea, Industri eta Antolakuntza espezialitateetako ikasleei zuzendutakoa izan da, unibertsitate eta herrialde hau ezagutarazteko, azken lau urteetan espezialitate hauetako hainbat ikaslek egin baitute sei hileko akademiko bat Turku Unibertsitatean.

